Sagardotegiak zabalik

TXOMIN GARMENDIA

Jai aundi oiek Errege egunerekin bukatu zitzaizkigun; turroi eta gaiñerako gozokiak egarria ematen digutenez, sagardotegiak zabaldu zaizkigu eta egarriak kenduko ditugula esan bear. Ilbeltzaren 7'an mordo batek ateak zabaltzen zituztela entzun gendun eta onuzkero, ziri eder ori danak aukeran izango dute.

Zer moduzko sagardoak diran? Sagardogilleak pozik omen dira bere mamaz, probatzeko zoria izan degun oiek, onak iruditu zitzaizkigun; Astigarra'ko aiton bati bein entzun niona beti gogoan izaten det ordea: «Txiriko sagardoa eta andregaia berdiñak dira. Txiritik sagardo txarrik ez da, andregai txarrik ere, ez, baiña etxera eramandakoan izaten dira komeriak». Zerbait esan zula esango nuke.

Sagardotegietako izaera asko aldatu zaigu, jatetxe biurtu zaizkigularik. Krisis edo eziñak izango ditugu, baiña sagardotegira joan eta asealdi batzuk artu gabe, nekez geldituko gera. Beste au ere esan bearra dago: beste iñun baiño merkeago ase gindezkela sagardotegian.

Sagardoak ere, bere leku edo erialde jakin batzuk ditu, guk ala uste degu beintzat eta leku oietatik kanpora, luzituko ote dute? Negozioak begiak argi jartzen ditu eta pentsatzen ez gendun lekutan ari zaizkigu sagardotegiak zabaltzen. Danak luzituko ote dute? Badet naiko bildur.

Emakumeak ez dauzkatela gizonezkoan eskubideak eta abar, negarrik asko entzuten degu; egia izan liteke, baiña zenbat aurreratu duten ikusteko, sagardotegira begiratzea asko degu. Garai batean etzegon esan besterik! Adibidez, Txirrita zanak bertso pranko kantatuko zun upel zar aien ondoan; zenbat emakumek entzun ote zioten? Aldameneko basarriko leio zuloren batean izan zitekean bai, atsoren bat, baiña gaiñontzean...?

Sagardotegietako beste aldakuntza bat, inoxidablezko ontzi eder oiek jartzea izan da. Aitortu bearra daukagu, zurak dun berezkoa erariarentzat; ontzi asko bai dira, eraria edertzen dutenak eta abar. Ontzi berri oietan dabillen garbitasuna arrigarria da ordea. Eta, sagardoan ere, garbitasuna izan iturburu nagusienetako bat.

Bai sagardogintzan, berdin gaztagintzan eta abar, asko ondu gera eta ori, garbitasunari zor diogu. Erabat gaur ainbat sagardo on, ez da iñoiz ezagutu eta kito.

Beraz, badegu leku prankotara joateko aukera; onenak edo gure gogozkoenak zein diran erabakitzeko ere bai, eta on egin deigutela. Etxerako bidea jartzen zaigu naiko arriskutsua; konturatu gaitezen taxistak ere or daudela eta denboraz buruz joka gaitezen. Gure sagardoak merezi dute ainbeste.

Badegu aurrerapenik asko gure bizimoduan; sagardotegira joanda, etxera bidean ertzaiñan bildurrez ibilli bearra etzuten ezagutu ordea gure aurreko aiton aiek. Larrosarik ez izaten nunbait arantzarik gabe.

Adiskide batek oraindik-orain esaten zidanez, azkenengo kosetxako ardoak ere ikusgarri onak omen dira eta orain jarraieran ez dute izan bear saltzeko asmorik; gerorako utzita baizik. Adiskide orri auxe erantzun nion: «gero izango al da zeiñek eranik?». Gaurko gazteak badakigu ardoarentzat zenbat maitasun dakarten. Guretzat gauz ederra izaten zan zato-ardoa eta orain ere ala da; baiña gaurko gazteantzat? Sarri diotana: urrengo belaunaldiak ez dula izango gaurkoaren antzik.

DV 22/1/95